

20%

Informazio-gida

KB LANBIDE HEZIKETA 

KB Merkataritza



JUSTIFIKAZIOA

Saltokiek baldintza batzuk bete behar dituzte beste lehiakide batzuen aurrean arrakasta izateko eta kontsumitzaileek establezimendu fidagarritzat har ditzaten. Baldintza horien artean daude merkaturatutako produktuen etiketak, informazioa ematen duelako eta segurtasuna sortzen duelako; marketin- eta publizitate-estrategiak, funtsezkoak baitira negozioaren aintzatespenean eta zabalkundean arrakasta izateko; informazio-betebeharrak betetzea, salmenta seguruagoa izateko; eta bezeroen eskubideak eta betebeharrak ezagutzea, kontsumo-gatazkak prebenitzeko.

HELBURUAK

- Hainbat produktu-kategoriatako etiketatuak ezagutzeko.
- Enpresa gisa ditugun eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea eta bezeroekiko gatazkei erantzuteko bideak ezagutzea.
- Aurretiazko informazioaren eskakizunetara eta kontratu-dokumentuetara hurbiltzea, kontsumitzailearentzat ahalik eta salmenta seguruena egiteko.
- Salmenta-teknikak ezagutzea eta publizitate-kanpaina arrakastatsuak egitea.
- Lanbide-bizitzako eguneroko gatazkak konpontzeko trebetasunak eskuratzea.

EDUKIAK

- **Produktuen etiketatzea.**
 - Ontziratutako elikagaien nahitaezko etiketatzea.
 - Ehunetako eta oinetakoetako etiketatzea.
 - Jostailuen eta bideojokoen etiketatzea.
 - Hainbat produkturen etiketa ekologikoak.
- **Salmenta-teknikak**
 - Marketin-estrategiak.
 - Saltokitik kanpoko publizitatea (irratia, sare sozialak, kartelak)
- **Aurretiazko informazioaren eskakizunak eta kontratu-dokumentuak**
 - Publizitatea, prezioak, ordutegiak, bermeak.
 - Aurrekontuak, fakturak, gordailu-frogagiriak.
- **Kontsumoari buruzko oinarriko nozioak.**
 - Enpresek erabiltzaileen aurrean dituzten eskubideak eta betebeharrak.
 - Gatazkak konpontzeko bideak.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (Aurretiko jarduerak)

- Informazio garrantzitsua aztertzea eta mapa mentala egitea.
- Negozio-eredua sortzea eta hasierako aurkezpena.

GARAPEN FASEA (Saioa)

- Publizitatea eta marketin-teknikak.
- Etiketazeak.
- Kontsumoari buruzko oinarrizko nozioak.
- Erosi aurretik eman beharreko informazioa eta kontratu-dokumentuak.
- Jardueren produktuen eta ebidentzien laburpena eta bilketa.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (Ondorengo jarduerak)

- Negozio-idea gainerako taldeei aurkeztea, ebaluazio-errubrika baten bidez erakusketari puntuak emango baitizkiote. Talde onenak "ekintzailletza-txeke" bat lortuko du.

OINARRIZKO KOMPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia.
- Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.
- Teknologiarako kompetentzia.
- Arterako kompetentzia.

ZEHARKAKOAK

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
- Elkarbizitzarako kompetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
- Izaten ikasteko kompetentzia.

METODOLOGIA

- Flipped Classroom.
- Lan kolaboratiboa
- Proiektu bidezko ikaskuntza.

ANTOLAKUNTZA

IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Tabletak. Interneterako konexioa.	3 taldetan banatutako taldea (berdea, gorria eta urdina). 2. fasea Kontsumobideren zentroan egiten da. 1. eta 3. faseak, kolektiboaren beraren egoitzan.	1. Fasea: 4 ordu 2. Fasea: 5 ordu 3. Fasea: 4 ordu

EBALUAKETA

IRAKASLEAK

Ebaluazio inkesta.

IKASLEAK

Ebaluazio inkesta.